

ALKATE DEKRETUA

Nik, Iزارo Elorza Arregik, Oñatiko Alkate naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz, ondorengo agintzea erabaki dut:

Informatikako laguntzaile lan-poltsa sortzeko hautaketa-prozesuko epaimahai kalifikatzailearen izendapenean aldaketa bat egitea.

2020 otsailaren 7ko Alkate Dekretu bidez, INFORMATIKAKO LAGUNTZAILE LAN POLTSA eratzeko deialdian arituko den Epaimahai kalifikatzaileako izendapenak egin ziren.

40/2015 legearen 23. artikulua, abstentzio kasuak jasotzen ditu, eta JESUS MARI MADINABEITIA JAUREGIren kasuan 23.2 b) kasua ematen denez, bere abstentzioa adierazi du. Beraz, beste kide bat izendatu beharra dago.

Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legearen 21.1g) atalak ematen dizkidan eskuduntzak erabiliaz, erabakitzen dut:

Lehenengoa: INFORMATIKAKO LAGUNTZAILE LAN POLTSA eratzeko prozesuaren EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEAREN osaketa aldatu eta izendapen berria egitea.

Epaimahaiburua:
Paskual Elustondo Darpon- Oñatiko Udaleko kontu-hartzailea

Epaimahaikideak:

Izar Salaberri Iñarra - Oñatiko Udaleko teknikaria
Leire Urbieta Gandiaga- Aretxabaletako Udaleko informatikaria
Iker Agirresarobe Urdanpilleta - Arrasateko Udaleko Pertsonal Saileko informatikaria.

Epaimahaiko idazkaria:
Begoña Alkorta Yarza.- Oñatiko Udaleko AOT.

Bigarrena: Erabaki hau iragarki-taulan eta www.onati.eus webgunean argitaratzea.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut.

Oñatin, 2020ko otsailaren 20an.


ALKATEAK
Izaro Elorza Arregi